

## Kulturen muinaren bila

Franz Boas-ek Antropologiaren bideak aldatu egin zituen, metodologia positiboa ezarriz. Hau da, zientzia emankorra izan nahi bazuen, beharrezkoa zuen Antropologiak, kulturen azterketa positibo, konkretu eta xehean finkatzea. Kultur barruti bakoitza bere autonomian aztertu beharrezkoa zen, eboluzionismoak teorizatu nahi zituen lege generalak alde batetara utziz.

Margaret Mead ere bide honetatik bideratu zen. Etnia bakoitzaren kultura bere eguneroko dinamikan aztertzen saiatu zen, inondik ekarritako lege orokorrik ezarri gabe. Izatez, metodo positibo hau Antropologia eboluzionistaren teoria handiak baino emankorragoa dela erakutsi dute Franz Boasen jarraitzaileek.

Metodologia honen oinarrian bi abiapuntu nagusi nabarmentzen ziren; elkarlotuak biak: kulturen arteko erlatibismoa eta kultura bakoitzaren nortasun-batasunak.

Herri edo etnia konkreturen baten kultura ez dago giza printzipio oinarrizko eta orokorren batzuren arabera juzgatzerik eta balioztatzerik. Gorputz autonomoa da kultura bakoitza; eta ez dago inolako printzipio absoluturik (zibilizazio mendebalekoak eman lezakeena edo), hura ezagutzeko eta interpretatzeko giltza hutsa izan daitekeena. Kultura guztiak ezberdinak dira...

Bestalde, kultura bakoitzak bere batasuna du, eta horrexegatik bere nortasun propioa. Margaret Mead, alde honetatik, Ruth Benedict emakume antropologoaren jarraitzailea da: horren ikaslea izana zen, hain zuzen ere. Biok oso goitik jarri dute emakume zientzilariaren lekua, Antropologiaren alorrean.